

ATZIZKIAK: -ti, -kor, -tsu, -zale

Atzizki batzuek **nolakotasuna** adierazten dute: **-ti, -kor, -tsu, -zale**.

Atzizki horiekin izenondoak sortzen dira; izenondo horiek oso erabilgarriak dira pertsonak, gauzak, lekuak eta animaliak deskribatzeko. Adibidez: *lotsati, osasuntsu, pilotazale...*

Atzizki batzuek **nolakotasuna** adierazten dute: **-ti, -kor, -tsu, -zale**.

Atzizki horiekin izenondoak sortzen dira; izenondo horiek oso erabilgarriak dira pertsonak, gauzak, lekuak eta animaliak deskribatzeko. Adibidez: *lotsati, osasuntsu, pilotazale...*

1. Osatu esaldiak hitz hauek erabiliz: gozozale, baketsua, bakarti, hauskorra, aldakorra.

- a) Kontuz gaur erosi dugun loreontziarekin, _____ da eta.
- b) Egun lasaia eta _____ igaro dugu mendian.
- c) Txikitan denok izan gara _____ amorratuak.
- d) Piratak uharte _____ batera alde egin zuen.
- e) Julen oso _____ da; gaur iritzi bat eta bihar kontrakoa emango du.

2. Lotu hitz bakoitza bere definizioarekin.

- | | |
|----------------|-------------------------------------|
| a) Itsaskor | erraz beldurtzen dena. |
| b) Ospetsu | arazoen aurrean kikiltzen ez dena. |
| c) Euskaltzale | ospe handia duena. |
| d) Kementsu | oso erraz itsasten edo lotzen dena. |
| e) Beldurti | euskararen alde diharduena. |

3. Lotu hitz bakoitza dagokion definizioarekin.

baikor pentsakor basati ezkor mendizale

- a) Portaera zakarreko pertsona:
- b) Gauzak alderik onenetik ikusteko joera duena:
- c) Mendiz mendi ibiltzea gogoko duen pertsona:
- d) Pentsamenduetan murgilduta sarri ibiltzen dena:
- e) Gauzen alde txarra ikusten duen pertsona: